



Arartekoaren 2021R-2111-20 Ebazpena, 2021eko abenduaren 16koa. Horren bidez, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio zerbitzuan abonaturako pertsonei uraren tasaren ordainagiriak beren kontagailuetan jasotako kontsumoen irakurketa zehatzen arabera igortzeko.

Aurrekariak

1. Kexagileak kexa bat sustatu zuen Arartekoaren aurrean. Kexa horretan, adierazi zuen ez zegoela ados Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak uraren kontsumoa fakturatzeko erabiltzen zuen sistemarekin.

Alegatu zuen bere etxebizitzak banakako ur-kontagailu bat zuela; eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde horrek, bere garaian, ordenantza fiskal bat onartu zuela edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzeko. Ordenantza horretan ordaindu beharreko tarifak zehatzen ziren, kontagailuak erregistratutako ur-kontsumoaren arabera.

Hala ere, kaltetuak adierazi zuenez, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarra ez zen ura higiezinetan instalatutako kontagailuen irakurketen arabera igortzen ari; sistema desberdin bat aplikatzen zuen, ordenantza fiskaleko aurreikuspenak alde batera utzita, kontagailu bakoitzeko kantitate finko bat eta beste aldakor bat oinarri hartuta (hain zuzen ere, Administrazio Batzarrak zerbitzu hori ematean izandako gastu guztiak banatzearen —zati berdinetan, abonatu guztien artean— emaitza dena).

Hala, zergadunak adierazi zuenez, 2018ko —kobratutako azken ekitaldia— ur-kontsumoari dagokionez, Administrazio Batzarrak, kontagailu bakoitzeko, urtean 50 €-ko kuota finkoa ordaintzeko eskatu zien etxeko hornidura duten higiezinaren titular guztiei. Kopuru hori 80 €-koa zen urtean, herrian instalatutako 4 industria-kontagailuen kasuan. Kuota finko horri, interesdunak adierazi bezala, beste zenbateko bat gehitu zitzaion; herrian instalatutako 64 ur-kontagailuen artean horniduraren, arazketaren, elektrizitatearen eta abarren gainerako kostu guztiak zatitzearen emaitza. Kostu horiek Administrazio Batzarrak bere gain hartu zituen 2018ko ekitaldian, zerbitzua eman ahal izateko; eta ez ziren bildu urteko kuota finkoa ordainduta.

Kaltetuak zalantzan jartzen zuen kostuak jasanarazteko sistema hori, ez zettorrelako bat ordenantza fiskalak bere garaian jasotako aurreikuspenekin eta kontsumo-tipologia oso desberdinak bereganatzen zituelako, argi eta garbi, baliabide horren etxeko kontsumo moderatua egiten zuten erabiltzaileen kaltetan. Hala, agerian utzi zuen herrian, familia bakarreko etxebizitzez gain, honakoak zeudela: bi ostalaritza-jarduera, klub nautiko bat





(eta bertan ostalaritza-zerbitzuak ere ematen direla), Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren mendeko zentro ofizial bat, eta igerileku partikular ugari.

Interesdunak behin baino gehiagotan jo zuen Administrazio Batzarrera, kostuak banatzeko ezarritako sistemarekin ez zegoela ados adieraztera; eta zerbitzua abonatu bakoitzak kontsumitutako eta ur-kontagailuak erregistratutako ur-bolumenaren arabera fakturatzeko beharra nabarmendu zuen. Hala ere, hark egindako eskaerak ez ziren onartu; eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde horren berariazko erantzunik ere ez zuten jaso eskaerek.

2. Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO), 2001eko otsailaren 5eko 15. zenbakian, jasota zegoen Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak ordenantza fiskal bat (edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen zuena) argitaratu zuela. Ordenantza horren Eranskinen, herrian ura kontsumitzeagatik ordaindu beharreko tarifak jasotzen ziren.

Hala ere, ez zirudien Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenik 2001az geroztik aplikaturiko tarifen zenbatekoaren balizko eguneratzeak. Horrek, hasiera batean, arauaren testuak, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean 2001eko otsailaren 5ean argitaratutako idazketan, indarrean jarraitzen zuela ulertzera behartzen zuen.

Ordenantza fiskal horren Eranskinak honako tarifa hauek finkatzen zituen:

TARIFAK

A) Etxeetako erabilerak:

- Zerbitzu minimoko kuota: taularen arabera
- Kontsumoko kuota.
- Mantenimenduko kuota: 3.000 pezeta/urtea.

B) Industria-erabilerak:

- Zerbitzu minimoko kuota.
- Kontsumoko kuota: taularen arabera.
- Mantenimenduko kuota: 5.000 pezeta/urtea.

Uraren hileko tarifa

M ³	90 m ³ - raino	90etik 150era	150 etik 200era	200 etik 250era	250 etik 300era	300 etik 400era	400 etik 500era	500etik gora
m ³ -ren prezioa	0	20 pta	75 pta	150 pta	200 pta	250 pta	300 pta	400 pta





Ordenantza horrek, gainera, hornidurari dagokionez, honako hau zehazten zuen:

“Edateko urez hornitzeko moduak honako hauek izango dira:

1. Etxeko kontadorearen bidezkoa, norbera elikatzeko, garbitzeko edo norbere higienarako ura denean.

2. Industrietako kontadorearen bidezkoa.

a) Ura garbitasunerako eta higienarako baino erabiltzen ez duten industriak eta saltokietan.

b) Ura fabrikazio prozesuan (okindegiak, izotz-lantegiak, etxaldeak, etab.), hau da, osagai edo lehengai bezala erabiltzen duten industria eta saltokietan.

Aurrekoak ez bezalako horniduretan (industriakoa, nahiz publikoa, nahiz etxekoa izan), eskura dituen datuak kontuan hartuta, Zerbitzuak kasuan kasu erabakiko du zein emari jarri, eta emari horri dagozkion tarifak eta baldintzak aplikatuko dizkio.” (13. art.)

Halaber, honako hau adierazi zuen: *“Zerbitzua ez dago beharturik urez hornitzera, baldin eta ura nekazaritzan, lore-hazkuntzan, lorategi edo zuhaiztietan eta igerilekuetan erabiltzeko bada. Zerbitzuak ur-emari handia duenean bakarrik baimen litezke harpidetza-poliza horiek. Horrelakoetan, industria tarifa aplikatuko da ur-kontsumoan.” (14. art.)*

Era berean, 34. artikulua honako hau ezartzen zuen: *“Benetako kontsumoa, kontadoreak adierazitakoa izango da. Benetako kontsumoa arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori kontsumitu dela joko da, kontadoreak markatzen duen kontsumoa edozein dela ere.”*

41. artikulua hau gaineratzen zuen: *41. artikulua.- Urtebete baino gutxiagoko epean aurkeztuko zaio hornidura-fakturazioa harpidedunari. Hala ere, Ullibarri-Gamboako Administrazio Batzarrak, harpidedunekin batera, hiler, bi hiler edo hiru hiler aurkezteko aukera aztertuko du*

3. Erakunde hau Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrarekin harremanetan jarri zen, emandako informazioa kontrastatzeko eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde horrek 2018an urteko tasa igortzeko erabili zituen tarifak onartu eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeari buruzko zehaztasun handiagoa lortzeko.
4. Adierazi behar da Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak ez duela, orain arte, Arartekoak egindako informazio-eskaera eta errekerimendua argitzeko txosten idatzirik bidali. Nolanahi ere, zehaztu behar da errejidore-batzarburua bai jarri dela harremanetan erakundearekin telefonoz, azken urteetan aplikatu den kostuen jasanarazpen-sistema azaltzeko; eta adierazteko ez zekiela





2001az geroztik ordenantza fiskalik argitaratu ote zen biztanlegune txiki horretan ur-tasaren ordainketa arautzeko.

Zehazki, izandako elkarrizketan, kexagileak azaldutako kostuen jasanarazpen-sistemaren aplikazioa berretsi zuen; eta adierazi zuen ez zekiela herrian instalatutako ur-kontagailuek behar bezala funtzionatzen zuten ala ez. Era berean, adierazi zuen duela 8 urte arte 18 €-ko finkoa ordaintzen zela etxebizitza bakoitzeko; hori 30 €-ra igo zela hasiera batean; eta, azkenik, 50 €-an ezarri zela, bildutako kuotak ez zirelako nahikoak Administrazio Batzarrak zerbitzua emateko zituen kostuak estaltzeko. Erabaki horiek, adierazi zuenez, Kontzejuak hartu eta adostu zituen.

Era berean, Administrazio Batzarreko errejidore-batzarburuak zehaztu zuenez, 2019ko urtarrilean, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde hori Urbide Consorcio de Aguas de Álava-Arabako Ur Partzuergoan (aurrerantzean, Urbide) sartu zen; nahiz eta partzuergo horrek ez zuen hasi Uribarri-Ganboako Administrazio Batzarrak egindako altako kontsumoaren fakturazioa, ez eta urtegitik datorren edateko uraren horniduragatik ordaindu behar zitzaizkion gastu elkartuena ere. Horrenbestez, Administrazio Batzarrak ez zien zerbitzuko abonatuari egindako kontsumoei dagokien ur-tasaren zenbatekoa igorri 2019ko hasieratik.

Azkenik, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde horrek zehaztu zuenez, herrian ur-kontsumoa baliabide propioekin —herritarrek kudeatzen duten iturburu bateko urarekin— egiten da partzialki; eta gainerako beharrak urtegitik datorren edateko uraren horniduraren bidez betetzen dira. Urtegitiko ur-baliabideen bigarren hornidura hori, azken urteetan, AMVISAK (Gasteizko Udal Urak SA) hornitu eta Administrazio Batzarrari alta emanda fakturatu zuen. Hala ere, 2019ko urtarriletik, Administrazio Batzarra Urbiden sartu zenetik, altako fakturazio hori ur-partzuergo horrek hartu behar zuen bere gain.

Gogoetak

1. Herritarren kexa horrek zalantzan jartzen du Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak, 2018an, zerbitzuan abonaturako pertsonen artean uraren tasa igortzeko orduan aplikatutako kostuen jasanarazpen-sistemaren legezkotasuna; guztiz baztertzen baitu abonaturako pertsona bakoitzak (hau da, tasaren subjektu pasibo bakoitzak) zergadun gisa egindako kontsumo zehatza. Era berean, herritarrek aurkeztutako erreklamazioei berariazko erantzunik ez zaiela eman ere adierazten da kexan.





Adierazi den bezala, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak, 2018an, zerbitzuko abonatuak edateko uraren hornidura-zerbitzua emateko egin zituen kostu guztiak jasanarazi zizkien etxeko hornidura zuten higiezinaren titular guztiei, kontagailu bakoitzeko urteko 50 €-ko kuota finkoa kobratuz. Herrian instalatutako 4 kontagailu industrialen kasuan, kuota hori urtean 80 €-koa izan zen. Kuota finko hori bigarren zenbateko bat gehitu zitzaion, herrian instalatutako 64 ur-kontagailuen artean zati berdinetan zatitzearen emaitza; kontagailu bakoitzeko kuota finkoa ordainduz estali ez zen zenbatekoa.

2. Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek, historikoki, beren eskumeneko oinarritzko zerbitzu batzuk ematen dituzte Araban; eta horien artean dago edateko uraren hornidura-zerbitzua. Lortutako zerbitzuaren ordainetan abonatuak ordaintzen duten kontraprestazio ekonomikoak, zehazki, tasa baten izaera juridiko-tributariora du.
3. Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak Kontzejuen estatutu juridikoa arautzen du, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde horietako biztanleei behar bezalako segurtasun juridikoa eskaintzeko asmo argiarekin.

Arau horren 12.j artikulua ezartzen du Kontzejuko auzo-batzarrari honakoa dagokiola: *“kredituak aitortzea, aurrekontu-partidarik ez dagoenean, eta aurrekontuak salbuespen-ordenantzak eta kontuen zentsura onartzea.”*

Ordainarazpenen ordenantzak onartzeko ahalmena aitortzeak bat etorri behar du Foru Arau horrek 34. artikuluan jasotzen dituen aurreikuspenekin; artikulua horretan, berariaz aurreikusten du honakoa: *“Herri-Batzarrek onartu eta idatzitako Ordenantza eta Arautegiak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eman behar dira argitara, eta haien behin-betiko testua osorik argitaratu arte ez dira indarrean sartuko.”*

Halaber, 11/1995 Foru Arauaren 39. artikulua honako hau aitortzen du: *“Arabako Lurralde Historikoaren Ogasun Lokalak araupetzen dituen Foru Arauaren II. Atalak dioena eta arau hori garatzen duten xedapenak ere bete behar dituzte Herri-Batzarrek ogasunek, kasu bakoitzerako egin beharreko moldapenekin; hortaz, tasak, kontribuzio bereziak eta prezioak ipini eta esijitu ditzakete”.*

4. Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak, 2018an igorritako tasak sortu ziren unean indarrean zegoenak, II. Tituluan (2. artikulutik 54.era), udal-erakundeek dituzten baliabideei heltzen zien; eta horien artean daude tasak. 20. artikulutik 27.era bitartekoetan jasotako aurreikuspen zehatz horiek Arabako Kontzejuei ere aplikatu behar zitzaizkien;





eta, beraz, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak aplikatu behar zituen zerbitzuan abonatutako pertsonen uraren tasaren zenbatekoa igortzean.

Duela gutxi indarrean sartu da Arabako Lurralde Historikoan irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onartzen duena (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala, 144. zk., 2021eko urriaren 6koa).

Arau horren 23. artikulutik 30. artikulura tasen araubide juridikoa arautzen da, uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20. artikulutik 27.era artekoetan aurrez araututakoaren pareko edukiarekin.

Nolanahi ere, kaltetuak igorritako eta auzitan jarritako azken ordainagiriak 2018ko ekitaldia aipatzen duenez, une horretan indarrean zegoen Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren artikulua-multzoa aipatuko dugu: 41/1989 Foru Araua.

Arau horrek, 20. artikuluan, honakoa zioen:

“1. Previo acuerdo de imposición y aprobación de las Ordenanzas correspondientes, los Municipios del Territorio Histórico de Álava, en los términos previstos en esta Norma Foral, podrán establecer y exigir tasas por prestación de servicios o realización de actividades de competencia municipal que se refieran, afecten o beneficien de modo particular los sujetos pasivos.

En todo caso, tendrán la consideración de tasas las prestaciones patrimoniales que establezcan los municipios de este Territorio por:

A) La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

B) La prestación de un servicio público o la realización de una actividad administrativa en régimen de derecho público de competencia municipal que se refiera, afecte o beneficie de modo particular al sujeto pasivo, cuando se produzca cualquiera de las circunstancias siguientes:

a) Que no sean de solicitud o recepción voluntaria para los administrados.

A estos efectos no se considerará voluntaria la solicitud o la recepción por parte de los administrados

- Cuando venga impuesta por disposiciones legales o reglamentarias.

- Cuando los bienes, servicios o actividades requeridos sean imprescindibles para la vida privada o social del solicitante.

b) Que no se presten o realicen por el sector privado, esté o no establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.”





Zehazkiago, manu horren 3. atalak adierazten zuen toki-erakundeek: *“podrán establecer tasas por cualquier supuesto de prestación de servicios o de realización de actividades administrativas de competencia municipal, y en particular por (...)*

t) Distribución de agua, gas, electricidad y otros abastecimientos públicos incluidos los derechos de enganche de líneas y colocación y utilización de contadores e instalaciones análogas, cuando tales servicios o suministros sean prestados por municipios.”

Adierazi bezala, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek, historikoki, beren eskumeneko oinarrizko zerbitzu batzuk ematen dituzte Araban; eta horien artean dago edateko uraren hornidura-zerbitzua.

Zerbitzu horien ordainarazpenak ordenantza fiskal bat onartzea eskatzen du. Udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek kasuan, ordenantza hori Kontzejuek onartu behar dute; gainera, Kontzejuek onartutako erabakiak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu behar dira eta: *“...behin-betiko testua osorik argitaratu arte ez dira indarrean sartuko”* (Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 34. artikulua).

Hau da, martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuenak, 34. artikuluan udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek ere ezartzen die Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dituztela ordainarazpen fiskalei buruz Kontzejuek hartutako erabakiak; erabaki horiek indarrean sartu ahal izateko eta, ondorioz, zergadunei ordaintzeko eskatu ahal izateko.

5. Ez da egiaztatu eta erakunde honi ez zaio adierazi Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu direnik 2001eko edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aurreikuspenen balizko aldaketak edo eguneratzeak. Informazio zehatz hori berriaz eskatu zaio Administrazio Batzarrari, baina ez da eman. Hain zuzen, emandako ahozko informazioak argudiatzen du Kontzejuek hartu dituela erabakiak.

Ordenantza fiskal horrek, azken xedapenean, honako hau ezartzen du: *“Ordenantza hau, bere Eranskina barne, adierazten den egunean onetsi ziren behin betiko, eta 2001eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzen den arte.”*



6. Ondorioz, ulertu beharko litzateke oraindik indarrean jarraitzen dutela edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalean (Uribarri Ganboako Kontzejuak onartu eta 2001eko otsailaren 5ean Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa) jasotako aurreikuspenek. Izan ere, gerora onartu ahal izan diren balizko aldaketek ezin izango zuten indarrean sartu, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean ez baitzen argitaratu Kontzejuak onartutako tasaren erregulazio berria. Beraz, aldizkarian argitaratu ezean, tasaren aldaketa horiek ezin zaizkie eskatu zerbitzuaren erabiltzaileei.

Azpimarratu behar da tasen eguneratzeak onartzeko, nahiz eta zerbitzua emateagatiko kostuak handitzearen ondorio izan, beharrezkoa dela edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa bat onartzea; beraz, tarifa berriak ezin dira aplikatu harik eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean behin betiko argitaratu arte.

Horri dagokionez, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak ordenantza fiskalak aldatzeko jarraitu beharreko prozedura zehazten du 16. artikuluan. Prozedura horrek Arabako Kontzejuak ere lotzen ditu, eta haiei ere aplikatzen zaie; Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen 11/1995 Foru Arauaren 39. artikulua berariaz aurreikusten baitu. Honakoa aitortzen du artikulua horrek: *“Arabako Lurralde Historikoaren Ogasun Lokalak araupetzen dituen Foru Arauaren II. Atalak dioena eta arau hori garatzen duten xedapenak ere bete behar dituzte Herri-Batzarrek ogasunek, kasu bakoitzerako egin beharreko moldapenekin; hortaz, tasak, kontribuzio bereziak eta prezioak ipini eta esijitu ditzakete”*. II. Titulu horrek Foru Arauaren 2. eta 54. artikuluen (biak barne) arteko xedapenak hartzen ditu.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16. artikulua honako hau ezartzen du: *“1. Udal korporazioek zergen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta zerga kuotak zehazteko behar diren elementuak finkatzeko hartzen dituzten erabakiak eta zerga ordenantzen onarpenak eta aldarazpenak beren iragarki oholetan jarriko dira hogeita hamar egunetan, gutxienez, eta aldi horretan interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute eta nahi dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.*

2. Udal erakundeek azalpen iragarkiak nahitaez argitaratu behar dituzte Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean. Era berean, hamar mila pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten erakundeek Lurralde Historikoan hedapenik handienetako den egunkari batean argitaratu beharko dituzte.

3. Jendaurreko erakusketaldia amaitu ondoren udal korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte aurkeztutako erreklamazioak ebazteko eta ordenantzaren behin betiko testua onartzeko, indargabetzeko edo behin

behineko erabakian aipatzen diren aldaketak egiteko. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da.

4. Edonola ere, aurreko idatz zatian aipatzen diren behin betiko erabakiak (modu automatikoan behin betiko bihurtutako behin-behinekoak barne) eta ordenantzen edo beren aldarazpenen testu bateratua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira; izan ere, ez dira indarrean jarriko harik eta bertan argitaratu arte.

5. Hogei mila pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten udalerrietako erakundeek beren zergak arautzen dituzten ordenantzen testu osoak argitaratuko dituzte ekitaldi ekonomiko bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Dena den, udal erakundeek argitaratutako zerga ordenantzen kopiak eman beharko dizkiete eskatzen dituzten guztiei.”

Adierazi behar da aurreikuspen horiek tokiko erakundeek nahitaez aplikatu behar dituztela eta, ondorioz, ezin dituztela modulatu, ezta baztertu ere jardueren baliogabetasunaren akatsean erori gabe.

Horri buruzko jurisprudentzia konstantea da, eta prozeduraren garrantzia azpimarratzen du; batik bat, informazio publikoari eta erabakiak aldizkarietan argitaratzeari dagokienez. Are gehiago, funtsezkotzat jotzen dituen bi izapide horietako edozein ez gauzatzea ordena publikoaren okertzat hartzen du, eta horrela onartutako ordenantza nahiz ordenantza aplikatzerakoan gauzarazi diren ordainketak guztiz baliogabe geratzea eragiten duela azaltzen du:

“cuando se trata de disposiciones de carácter general, el quebrando del cauce formal de su elaboración, es decir, la vulneración de una norma de superior jerarquía reguladora del procedimiento a seguir en la creación de la disposición reglamentaria, produce, como regla general, la nulidad de pleno derecho de la disposición (...) y ello porque sólo siguiendo tal cauce formal, que implica un límite al ejercicio de la potestad normativa, se garantiza la legalidad, acierto y oportunidad de una disposición que pasa a integrar el ordenamiento jurídico.” (Auzitegi Gorenaren 1988-05-10eko Epaia, 2. Oinarri Juridikoa, ildo beretik, eta besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2011-12-19ko Epaia eta Auzitegi Gorenaren 2013-10-03ko Epaia).

Ondorioz, aditzera eman behar da Uribarri Ganboa herrian etxeko ur-horniduragatiko tasan adostu ahal izan diren balizko aldaketak, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ez badira, ez direla egokitu goragoko arau juridikoak (kasu honetan, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak), nahitaez, finkatzen dituen aurreikuspenetara. Horrek esan nahi du tasa horren kuantifikazioan argitaratu ez diren aldaketa horiek ezin direla indarrean jarri, eta, beraz, zerbitzuan abonatutako pertsonen ezin zaizkiela behar bezala eskatu.



7. Adierazi den bezala, kexagilearen asmoa da aztertzea ea zerbitzua fakturatzen zaien erabiltzaileek egindako ur-kontsumo zehatza erabat alde batera uzten duen kostuen banaketa-sistema bat ur-tasa bat igortzeko sistema baliagarria den.

Kostuak banatzeko irizpide horri jarritako lehen eragozpena aurreko gogoetetan aztertu da dagoeneko; izan ere, azaldu da zerga-zor zehatza zehazteko sistema horrek ez duela babesik edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskal baten (onartutakoa eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa) aurreikuspenetan.

Tasak aukerako zergak dira toki-erakundeentzat; beraz, tasa horiek kobratu ahal izateko, ezinbestean, erabaki bat hartu behar da tasa horiek ezarri eta antolatzeko, dagokion zerga-ordenantza onartu eta argitaratuz. Aurkitu ahal izan den balio osoz onartutako eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako ur tasa arautzen duen ordenantza fiskal bakarria 2001eko Ordenantzari dagokio. Ordenantza horrek ez du jasotzen 2018an erabilitako kostuen banaketa-sistema; aitzitik, horren 34. artikuluan berariaz aurreikusten da honakoa: *“Benetako kontsumoa, kontadoreak adierazitakoa izango da”*.

Era berean, Arartekoaren iritziz, edateko uraren hornidura-zerbitzu batean abonaturatutako pertsona bakoitzak eta kontagailuan erregistratutako kontsumitutako ur-bolumen zehatza alde batera uzten duen kostuak banatzeko irizpide bat justizia materialaren printzipioaren eta legezketasunaren, berdintasunaren, baliokidetasunaren, ahalmen ekonomikoaren eta baliabidearen erabilera iraunkorraren printzipioen aurkakoa izango litzateke.

8. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak zerbitzuak emateagatiko tasen zenbatekoa arautzen du 24. artikuluan, baliokidetasun-printzipioan oinarrituta; eta, zehazki, honako hau adierazten du:

“2. Oro har, eta hurrengo paragrafoan ezartzen denarekin bat etorrituz, zerbitzu edo jarduera bat egiteagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa ezin da izan, guztira, zerbitzuaren edo jardueraren kostua (benetakoa edo ustezkoa) edo, bestela, jasotako prestazioaren balioa baino gehiago.

Zenbateko hori zehazteko kontuan hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak (finantza kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasa eskatzea eragiten duen zerbitzua edo jarduera mantentzeko eta zentzuz egiteko kostuak barne), kostuok ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua zein





haien kargua hartzen duen erakundea gorabehera. Zerbitzua edo jarduera mantentzeko eta zentzuz egiteko kostua organo eskudunak onartutako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu da.

3. Zerga kuota hauetako bat izango da, beraren ordenantzan ezartzen denaren arabera:

- a) Tarifa bat aplikatzearen ondoriozko kopurua.*
- b) Berariaz zehaztutako kopuru finkoa.*
- c) Aurreko bi prozedurak batera aplikatzearen ondoriozko kopurua.*

4. Tasa baten zenbatekoa finkatzeko kontuan hartu ahal izango dira hura ordaindu behar dutenen gaitasun ekonomikoaren inguruko irizpide orokorrak."

Tasen konfigurazioaren oinarrian dauden autofinantzaketaren eta kostuen berreskurapenaren printzipioetatik abiatzen bagara, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak aplikatutako zerbitzuaren kostuaren banaketa-sistemak itxuraz lekua izan lezake; izan ere, hasiera batean, kostuak estaltzeko behar adina diru-sarrera lortzeko aukera ematen du eta, horrela, zerbitzuaren oreka ekonomiko eta finantzarioa bermatzen da.

Hala ere, lehen balorazio horrek ez dirudi aurrera egin dezakeenik, baldin eta aplikatutako sistema Foru Arauak toki-erakundeei tasa kuantifikatzeko gaikuntza ematen dien baldintzekin (aipatutako 24. artikulua 3. paragrafoan jasotzen dira) alderatzen bada. Artikulu horretan, zerga-kuota tarifa baten aplikaziotik, horretarako adierazitako kopuru finko batetik edo bi prozedurak batera aplikatuz erator daitekeela baino ez da onartzen.

Adierazi den bezala, baliokidetasun-printzipioak agintzen du tasen arloan. Baina printzipio hori bi printzipiotan banatzen da: kostuen estalduraren printzipioa, zerbitzuaren kostuen eta tasagatiko diru-bilketaren arteko korrelazio horretan gauzatzen dena; eta lortutako aprobetxamenduaren edo jasotako erabilgarritasunaren printzipioa, biltzen den tasaren eta jasotzen duen zerbitzu zehatza emateak herritarrentzat duen balioaren artean egon behar duen nolabaiteko proportzionaltasunean zehazten duena doktrina zientifikoak. Hori dela eta, zerbitzu-ematearen kostu orokorraren banakako banaketa baliozkoa izateko, ez da nahikoa kostu orokorraren gehieneko muga errespetatzea; izan ere, banaketa indibidualizatu hori erabilera-mailen proportzionaltasun- eta haztapen-irizpideen arabera ere egin behar da.

Tasa banakatuta banatzen den unean hausten du Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak aplikatutako sistemak. Banaketa indibidualizatu horretan, egokitzat jotzen bada, subjektu pasiboen ahalmen ekonomikoaren irizpide orokorrak har daitezke kontuan; baina, nolana ere, erabilera-mailen





proportzionaltasun- eta haztapen-irizpideak aplikatu behar dira, berdintasun-printzipioa eta baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra errespetatuz.

Berdintasun-printzipioa aztertzean, Konstituzio-auzitegiaren etengabeko doktrina finkatua hartu behar da abiapuntutzat; izan ere, horrek adierazten du tratamendu-desberdintasuna onar daitekeela hori irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarritzen denean.

Zentzu horretan, Konstituzio-auzitegiak adierazi izan du berdintasun-printzipioak ez dakarrela nahitaez kasu guztietan lege-tratamendu berbera ematea, garrantzi juridikoa duen edozein elementu bereizgarri bakartuz. Hortaz, gai zehatz baten arauketari dagokionean araudi-tratamendu desberdina emateak ez du beti esan nahi Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako agindua urratzen denik. Izan ere, soilik hartuko dira arau-haustetzat bereizketa hori egiten denean berdintzat har daitezkeen egoeren artean, horretarako justifikazio objektibo eta zentzudunik eskaini eta eduki gabe. Azken batean, berdintasun-printzipioak arbitrariotzat har daitezkeen edo justifikazio zentzudunik ez duten bereizketa-elementuak erabiltzea debekatzen du. Beste era batera esanda, berdintasun-printzipioak debekatzen duena desberdintasunak artifiziosuak edo justifikaziorik gabekoak dira, hain zuzen ere, irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarrituta ez egoteagatik, oro har onartutako irizpide edo balio-judizioen arabera.

Ur-tasa bat eratzean, ez du garrantzi juridikorik eta ez da alde artifiziosu edo justifikaziorik gabea ordaindu beharreko zerga-kuota erabiltzaileek egindako eta kontagailuek erregistratutako ur-kontsumo zehatzaren arabera zehaztea. Izan ere, kontagailuen funtzio bakarra eta hodietan instalatzeko arrazoia beren metrologia-helbururako balio izatea da.

Zergei dagokienez (hori da tasei dagokien eremua), berdintasun-printzipioa kontribuzio-ahalmenaren printzipioari dago lotuta, hori ezartzen duelako berariaz Konstituzioaren 31. artikulua; hauxe dio artikulua horrek: *“Guztiek lagunduko dute gastu publikoen euspenean bakoitzak ahal duen ekonomiko gaitasunaz zerga sistema baten bidez; berau berdintasun eta aurrerapen printzipioetan oinarriturik eta inoiz ez da konfiskagarri izango.”*

Horrela, bi printzipio horiek konbinatuta, tratamendu berezia eman ahal izango da pertsonen ahalmen ekonomikoaren arabera; eta, beraz, etxeko kontsumoa eta kontsumo industrial edo komertziala bereizi ahal izango dira.

Arabako Lurralde Historikoko zerga-legeriak beren-beregi jasotzen du ondorio berbera; zehazki, hauxe agintzen du: *“la ordenación del sistema tributario se basa en la capacidad económica de las personas obligadas a satisfacer los*



tributos...” (Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 2.1 artikulua). Artikulu hori ez da amaitzen zergak ordaindu behar dituztenen ahalmen ekonomikoa aipatuta; aitzitik, jarraitu egiten du aginduz zerga-sistemaren antolamendua, gainera, honako hauetan oinarritzen dela: “... en los principios de justicia, generalidad, igualdad, progresividad, equitativa distribución de la carga tributaria y no confiscatoriedad”.

Baina ura, gainera, baliabide urria da; eta eraginkortasunez erabili behar da. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauaren 9. artikulutik eratortzen da betebeharrak hori. Zuzentarau horren bidez, uren politikaren eremuan jarduteko esparru komunitario bat ezartzen da. Zehazki, 9. artikulua honakoa dio:

«1. Los Estados miembros tendrán en cuenta el principio de la recuperación de los costes de los servicios relacionados con el agua, incluidos los costes medioambientales y los relativos a los recursos, a la vista del análisis económico efectuado con arreglo al anexo III, y en particular de conformidad con el principio de que quien contamina paga.

Los Estados miembros garantizarán, a más tardar en 2010: que la política de precios del agua proporcione incentivos adecuados para que los usuarios utilicen de forma eficiente los recursos hídricos y, por tanto, contribuyan a los objetivos medioambientales de la presente Directiva, una contribución adecuada de los diversos usos del agua, desglosados, al menos, en industria, hogares y agricultura, a la recuperación de los costes de los servicios relacionados con el agua, basada en el análisis económico efectuado con arreglo al anexo III y teniendo en cuenta el principio de que quien contamina paga.

Al hacerlo, los Estados miembros podrán tener en cuenta los efectos sociales, medioambientales y económicos de la recuperación y las condiciones geográficas y climáticas de la región o regiones afectadas.»

Kostuak berreskuratzeko printzipioa berriro ere uraren erabilera eraginkorraren printzipioarekin lotuta ageri da Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan (hain zuzen ere, 111 bis artikuluan). Uraren erabileraren eraginkortasun-printzipio horretatik eratortzen dira kontsumo-tarteen arabeko tarifa-egiturak.

111 bis artikulua printzipio orokorrak arautzen ditu, eta honako hau adierazten du:

“1. Las Administraciones públicas competentes, en virtud del principio de recuperación de costes y teniendo en cuenta proyecciones económicas a largo plazo, establecerán los oportunos mecanismos para repercutir los costes de los servicios relacionados con la gestión del agua, incluyendo los costes ambientales y del recurso, en los diferentes usuarios finales.

2. La aplicación del principio de recuperación de los mencionados costes deberá hacerse de manera que incentive el uso eficiente del agua y, por tanto, contribuya a los objetivos medioambientales perseguidos.

Asimismo, la aplicación del mencionado principio deberá realizarse con una contribución adecuada de los diversos usos, de acuerdo con el principio del que contamina paga, y considerando al menos los usos de abastecimiento, agricultura e industria. Todo ello con aplicación de criterios de transparencia.

A tal fin la Administración con competencias en materia de suministro de agua establecerá las estructuras tarifarias por tramos de consumo, con la finalidad de atender las necesidades básicas a un precio asequible y desincentivar los consumos excesivos.»

Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legeak uraren ekonomia- eta finantza-araubidea ere jorratzen du, eta 41. artikuluan urarekin zerikusia duten zerbitzuen kudeaketan aplikatu beharreko printzipioak zehazten ditu. Artikulu horrek honako hau dio:

“41. artikulua. – Oinarri arautzaileak.

1.– Urak gero ere irauteko moduan erabiltzeko bidea eman behar du urarekin zerikusia duten zerbitzuen kudeaketak.

2.– Gainera, tarifa eta/edo kanon batzuk aplikatu beharko dira, toki-erakunde bakoitzak erabakitako kudeaketa-moduaren arabera, hau da, kudeaketa bakarka, elkarren artean edo partzuergoan egiten den kontuan hartuta. Tarifa eta/edo kanon horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauko 9. artikuluan jartzen duena bete beharko dute (2000ko urriaren 23koa da zuzentaraua, eta ur-politikaren arloko Batasuneko jarduera-esparrua ezartzen du). Tarifa eta/edo kanonen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da urarekin zerikusia duten zerbitzuen kostuak berreskuratu beharraren printzipioa (bereziki inbertsioaren kostu guztia, amortizazioarena eta zerbitzuak mantendu eta ustiatzearena), ingurumen-kostuak eta baliabideei dagozkienak berreskuratu beharra ere barne, eta orobat kontuan hartuko da kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela dioen printzipioa.



3.– Uraren kostua zuzenean lotuta egongo da erabilitako ur-kopuruei eta erabilerak ingurunean sortutako andeatzeari, eta progresioa izango da, kontsumitutako kopuruaren arabera.”

Esan gabe doa Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak aplikatu duena bezalako ur-zerbitzuaren kostuak egozteko sistema bat, erabiltzaileak egindako kontsumo zehatza alde batera uzten duena, ez datorrela bat gure legeriak finkatzen dituen ur-zerbitzuen kudeaketa zuzendu behar duten preskripzio eta printzipioekin.

Esan beharra dago ezarritako sistemak ez duela laguntzen uraren erabilera eraginkorra lortzen, eta gehiegizko kontsumoak ere ez dituela gutxien; beraz, ez dator bat lortu nahi diren ingurumen-helburuekin.

2001ean argitaratutako ordenantza fiskalaren aurreikuspenak, aldiz, neurri handiagoan egokitzen dira uraren araubide ekonomiko eta finantzarioa arautu behar duten printzipio orokorretara. Hala, 34. artikulua ezartzen duenez, *“benetako kontsumoa, kontadoreak adierazitakoa izango da”*; eta Eranskinak, etxeko erabileretarako eta erabilera industrialetarako tarifak bereizteaz gain, tarifa progresiboak ezartzen ditu, kontsumo-tarteen arabera.

Ordenantza fiskal hori da, bestalde, indarrekoztat jo behar dena; eta, beraz, Administrazio Batzarrak horren arabera ordainaraz diezaike ur tasa zerbitzuan abonatuakoei.

Gogoratu behar da Uribarri Ganboako Administrazio Batzarra botere publikoa dela eta, horregatik, bere jardunean *“Espainiako Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende dagoela.”* (Espainiako Konstituzioaren 9. artikulua).

9. Kontagailuei eta horien funtzionamendu egokiari dagokienez, 2001ean onartu eta argitaratutako ordenantza fiskalak jasotzen dituen aurreikuspen batzuk aipatu behar dira; ordenantza horrek honako dio:

“25. artikulua.- Kontadorea ongi mantendu beharko da, kontserbazio- eta funtzionamendu- baldintza onetan, eta Uribarri- Gamboako Administrazio Batzarrak egoki irizitako ikuskapenak egin ditzake, bai eta behar diren konponketak egin ere; orobat, matxura konpondu ezin denean, erabiltzailea kontadore berria jartzera behar dezake.

26. artikulua.- Kontadorea harpidedunarena izango da, baina Uribarri- Gamboako Administrazio Batzarraren zuzendaritza teknikoaren pean ezarriko da instalazioa. Matxuratzen denean, hura eskuetan erabili eta konpontzea,





Administrazio Batzarraren esku izango da bakarrik, eta harpidedunaren kontura izango da konponketa.

27. artikulua.- Harpidedunak edo Ullibarri-Gamboako Administrazio Batzarraren baimena ez dutenek, ura kontadoretik pasa ez dadin edo benetako kontsumoa adieraz ez dezan, kontadorea, hartunea edo instalazioak manipulatzeko badituzte, iruzur egingo dute”

10. Beste gai batzuei dagokienez, Arartekoak Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrari gogorarazi behar dio administrazio publiko guztiek espresuki erantzun behar dietela interesdunek egindako eskabide guztiei. Zehazki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua honela ebatzi beharra ezartzen die administrazio publikoei: *“Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berariazko ebazpena ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere.”*

Ondorioz, administrazioak izapide egokia eman behar die herritarrek aurkezturiko idazki guztiei, bizkor, arin eta eraginkortasunez; harik eta behin betiko ebazpena eman arte edo espedientea bukatu arte.

Arartekoak askotan salatu du zein kaltegarria den administrazioaren isiltasuna, babesik gabe uzten dituelako herritarrak, zeren eta ez baitakite administrazioak haien asmoari buruz zer egin nahi duen eta horrek galarazi egiten baitie erantzunaren balizko edozein berrikuspen.

Herritarren erreklamazioei administrazio erantzunik ez ematea administrazioaren funtzionamendu anormala da, eta halaxe dela agerrarazi behar du Ararteko erakundeak.

Espainiako Konstituzioak berak (103.1. eta 105. artikulua) bermatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrari erantzun eraginkorra ematen zaiola, eta herritarrek administrazio egokia izateko duten eskubidearen parte da. Eskubide hori Europako Konstituzioa ezarri duen Itunak gaineratu duen Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan ageri da.

Administrazio txarreko kasu bat da artikulua horietatik ondorioztatzen den arreta-egin beharra haustea, eta agerian uzten du administrazioak bere jardunean errespetatu behar duen printzipio orokor bat ez dela bete: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.a) artikuluan positibizatuta dagoen herritarrei emandako benetako zerbitzua; horren arabera: *“Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio,*





deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

a) Herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea..."

4/1999 Legeak honako hau aitortzen zuen zioen azalpenean: *"silencio administrativo es una patología del procedimiento ajena al correcto funcionamiento de las administraciones"* . Baita honako hau ere: *"esa situación de falta de respuesta por la administración, siempre indeseable, nunca puede causar perjuicios innecesarios al ciudadano"*.

Hala, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen arloko legeriaren azken helburua da herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna lortzea eta, ahal dela, ezarritako epean lortzea. Horretarako, beste zenbait neurriren artean, berariaz ebazteko betebeharra ezartzen die herri-administrazioei.

Horri dagokionez, gogoratu behar da denboraren joan-etorriak ez duela desagerrarazten administrazioak berariazko erantzuna nahitaez eman beharra.

Argi dago ezin direla alderatu biztanle gehien dituzten udalerriek administrazio batzarren aldean dituzten baliabide ekonomiko eta materialak. Hala ere, horrek ez du esan nahi herritarren erreklamazioei arrazoizko epe batzuen barruan berariaz erantzun ezin zaienik.

11. Azkenik, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak Ararteko erakundearekiko duen lankidetzak eskasa nabarmendu behar da. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 23. artikuluan ezartzen du euskal herri-administrazioek, lehentasunez eta premiaz, eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak eman behar dituztela.

Ondorioz, azaldutako arrazoi guztiengatik, ezin da zuzenbidearen arabera egokitzat hartu Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak erabiltzen duen abonatu-takako pertsonen artean kostuak jasanarazteko sistema.





Horregatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrari:

GOMENDIOA

Kexagileari 2018an igorritako ordainagiria deuseztatzea eta beste ordainagiri bat egitea, tasa gisa, bere etxebizitzan instalatutako kontagailuan neurtutako ur kontsumoa oinarri hartuta, edateko uraren etxez etxeko horniduragatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalak (onartutakoa eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa) ezartzen dion bezala.

Ordaintzeke dauden ordainagiriak (2019, 2020 eta 2021ean egindako kontsumoei buruzkoak) abonatutako pertsona guztiei igortzea, ordenantza fiskalak jasotzen dituen aurreikuspenen arabera. Ordenantza fiskalak, nolanahi ere, higiezinetan instalatutako kontagailuetan jasotako ur-kontsumoen irakurketa zehatzen arabera egitea eskatzen du.

Ur-tasa arautzen duen ordenantza fiskala berrikusteko prozedura hastea, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak ezartzen dion prozeduraren arabera; zerbitzuan abonatutako pertsonak ordaindu behar dituzten tarifen zenbatekoa eguneratu ahal izateko.

